



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

## **Batzar Nagusiek eskaerea egin dabe, Ertzaintzak La Avanzadako trafikoa "hobetu" daian**

Bilbon, 2014ko zezeilaren 7an.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Herri Lan eta Garraioetako batzordean, Eusko Jaurlaritzari, “La Avanzadako trafikoaren joan-etorria hobetzeko hartu beharreko neurriak hartzeko” eskaerea egitea onartu dabe. PP taldeak aurkeztutako arauz besteko proposamenean eskaerea bideratzen jako Eusko Jaurlaritzari, Ertzaintza izan daiten egunero “95.000 ibilgailutik gora jasoten dituan” bide horren pilaketaren arazoa konpontzeaz arduratu behar dana. Ekimenak aurrera egin dau, PP eta PSE-EE taldeen aldeko botoagaz eta EAJ-PNV eta EH Bildu taldeen abstentzinoagaz.

Batzarretako taldeek onartu dabe errepide horretako trafiko pilaketaren “behin betiko” konponbidea, Eskumaldeko komunikabide nagusiko trafikoa arintzeko Aldundiak aurreikusi dituan proiektuak gauzatzen diranean etorriko dala, Lutxanako zubia eta Lamiakoko azpi-flubiala, adibidez. Baina, hori gertatzen dan bitartean, PP-rentzat beharrezkoa da Seguritasun Sailari “arrete eskatzea”, Ertzaintza izan daiten, “disuasiorako, eta ez zigortzeko” helburua izango dauen presentziaren bitartez, herritarrek “denpora gehiago galdu ez daien” lagundu behar dauana.

EH Bilduk jarrera kritikoa erakutsi dau. Koalitzino abertzaleak “ez dau ikusten” polizia autonomikoak trafikoa arintzeko modurik. Aitor Torre batzordekidea “autobusentzako eta okupazino handirako errailak” eregitearen alde agertu da, helburu bikotxa lortzeko: automobil bakotxean pertsona gehiagok bidaiatzea, eta erabiltzaileak ibilgailu pribadutik garraio publikora bideratzea.

EAJ-PNV-k, bere aldetik, La Avanzadako trafikoa hobetzeko konponbidea errepide proiektu barriakaz – Lutxanako zubia eta Lamiakoko azpi-flubiala– helduko dala esan dau, baina onartu dau gaur egun bizi dogun abagune ekonomikoa dala eta “ezinezkoa dala” horreei aurre egitea. Hobekuntzarako neurri posibleak aitatzeko orduan, Jon Larrea batzordekide jeltzalearen ustez, hoberena lehenengo Eusko Jaurlaritzako eta Aldundiko zerbitzu teknikoei galdetzea izango litzateke, eurak diralako konponbideak diseinatu behar dituenak. Popularren ekimena, Ertzaintzak dagoaneko aurrera daroan “etenbako hobekuntza” prozesuaren barruan sartzen dala gehitu dau.

### **ZUBIEN ETA ZUBI-DIDEEN AZTERKETA OROKORRA**

PP-k egindako eskariari erantzunez, Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako foru diputatua batzordearen aurrean agertu da, Bizkaiko errepide sareko zubien eta zubi-bideen egoerearen barri emoteko. Aldundiak holango 1.184 estruktura ditu erregistrauta bere inbentarioan.

Arlo horretan aurrera eroan behar dan prozesua, une honetan dagoan inbentarioaren ustiapenagaz hasten da. Lau urtez behin inbentario hori eguneratu egiten da egitura “garrantzitsuenetan”. Garamendik azaldu dauanez, erregistro horretan egituren egoerea modu



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

“koalitatiboan” ezarten da. Epe laburrean jarduketea behar daben egiturak identifikatu eta gero, eraikuntza proiektua idazteko oinarri izan daitekezan ikuskapen nagusien burutzapena ezarten da.

Gai horregaz erlazionata, Garamendik adierazo dau “egitura guztiei aurretiko lehenengo ikuskapena egin jakela, eta kasu batzuetan ikuskapen nagusia be egin dala”. Helburua, egon daitekezan patologia zehaztea da, horren ostean, “epe laburrean” beharrezkoak izan daitekezan lanak egiteko behar diran dokumentu teknikoak edo birgaitze proiektuak idazteko.

Bere esku-hartzean, Garamendik iragarri dau urtarril honetan hasi dirala La Arenako bidezubiaren azkeneko ikuskapen lanak. Lan horreek 224.000 euroko aurrekontua daukie, eta hilebete bi beharko dira egiteko. Une honetan egiten diran lan horreetan, azpikaldeko ainguraketak oso-osorik aztertuko dira, tiranteen teinkatze indarrak neurtuko dira, tiranteen indarra monitorizatu egingo da, kableen nekea aztertuko, eta korrosinoa atzeratzeko tratamenduak egingo dira. Amaitzeko, ikuskapena, tiranteen eta ainguraketen metalezko elementuetan egon daitekezan ugertze patologien, pinturaren, hormigoiairen eta zubiaren taulategiko euspeneko elementuen egoeraren azterketa orokorra egingo da.

Behin betiko azterketa hori, “behar izan ezker” azpiegitura berregokitzeko proiektua egin ahal izateko egin behar dan aurretiko eta beharrezko pausua da. Diputatuak emondako informazioaren arabera, ekimen hori, azpiegituren eta superegituren “aldian behingo prebentzinozko mantentze lanen” barruan dago, “horreen bizitza erabilgarria luzatzeko”.

Egindako ikuskapen nagusietan ikusi da beste sei birgaitze edo barrikuntza proiektu egin behar dirala: BI-633 errepidean, Mallabian; BI-637 errepidearen ganeko igarobidean, Leioan; Atxazpiko bidezubian, BI-3438 errepidean; Ugaldebieta-4 egituran; eta A-8 autopistako Errekaldeko eta Kadagza ibaiko (Zorrotza) bide-zubietan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales piden que la Ertzaintza "mejore" el tráfico en La Avanzada**

En Bilbao, a 7 de febrero de 2014.

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado hoy, en la comisión de Obras Públicas y Transporte, instar al Gobierno Vasco a que “adopte las medidas necesarias para mejorar el discurrir del tráfico en La Avanzada”. En la proposición de norma presentada por el PP, se traslada al Ejecutivo vasco que sea la Ertzaintza la que ponga solución al problema de congestión que sufre este vial por donde transcurren “más de 95.000 vehículos” al día, según datos ofrecidos por los populares. La iniciativa ha salido adelante con el voto favorable de PP y PSE-EE, y la abstención de PNV y EH Bildu.

Los grupos junteros han admitido que la solución “definitiva” a la congestión viaria de esta vía llegará con la materialización de los proyectos que la Diputación contempla para aliviar el tráfico en la principal vía de comunicación de la Margen Derecha, como es la construcción del puente de Lutxana y del subfluvial de Lamiako. Mientras tanto, el PP ve pertinente dar un “toque de atención” a la consejería de Seguridad para que sea la Ertzaintza, con una presencia “disuasoria y no penalizadora”, la que contribuya a que los ciudadanos no sufran “más pérdidas de tiempo”.

EH Bildu ha mostrado una postura crítica. La coalición abertzale “no ve la forma” en que la policía autonómica puede agilizar el tráfico. Su apoderado, Aitor Torre, ha abogado por la construcción de “carriles bus y de alta ocupación”, para conseguir un doble objetivo: fomentar que viajen más personas en cada coche y trasvasar usuarios del vehículo privado al transporte público.

Por su parte, el PNV ha sostenido que la solución para mejorar el tráfico en La Avanzada llegará con los nuevos proyectos viarios -el puente de Lutxana y el subfluvial-, aunque reconoce que “no es posible” abordarlos en la actual coyuntura económica. A la hora de lanzar posibles medidas de mejora, el apoderado jeltzale Jon Larrea ha sugerido que se consulte primero a los servicios técnicos del Gobierno Vasco y de la Diputación que son quienes tienen que diseñar las soluciones. La iniciativa de los populares la circunscribe en un proceso de “mejora continua” que desarrolla ya la propia Ertzaintza.

### **CHEQUEO GENERAL A PUENTES Y VIADUCTOS**

A petición del PP, la diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, comparecía en la comisión para dar cuenta del momento en el que se encuentra el estado de los puentes y los viaductos de la red de carreteras de Bizkaia. La Diputación tiene registradas en su inventario 1.184 estructuras de este tipo.

El proceso seguido en este ámbito comienza con la explotación del inventario disponible, que cada cuatro años se actualiza en las estructuras “más relevantes”. En este registro, Garamendi ha



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

señalado que se establece el estado de las estructuras de forma “cualitativa”. Una vez identificadas aquellas estructuras que podrían precisar una actuación a corto plazo, se establece la ejecución de las necesarias inspecciones principales que pudieran servir de base para la redacción de un proyecto constructivo.

Garamendi ha señalado que a “todas las estructuras se les ha realizado una primera inspección previa y, en algunos casos, se ha realizado la principal”. El objetivo es detallar las patologías existentes para posteriormente redactar los documentos técnicos o proyectos de regeneración necesarios para la ejecución de las obras que, "en el corto plazo", se estimen oportunas.

Precisamente, la responsable foral de carreteras ha anunciado que este mes de enero han comenzado los trabajos de la "inspección final" del viaducto de La Arena, con un coste de 224.000 euros y un plazo de ejecución de dos meses. Los trabajos en curso consisten en el análisis completo de los anclajes inferiores, medición de fuerzas de tensado de los tirantes, monitorización de la fuerza en los tirantes para el estudio de la fatiga en los cables y realización de tratamientos para retardar la corrosión. Finalmente, la inspección se completa con una revisión general de las patologías de oxidación en elementos metálicos de los tirantes y anclajes, estado de pintura, hormigón y elementos de apoyo del tablero del puente en los estribos.

Este estudio definitivo es el paso previo y necesario de cara a, “si es preciso”, elaborar el proyecto de acondicionamiento de esta infraestructura. Según ha informado, esta iniciativa forma parte del “mantenimiento preventivo periódico” de las infraestructuras y superestructuras, que tiene como objetivo "alargar su vida útil”.

De las inspecciones principales efectuadas, se ha establecido la necesidad de realizar otros seis proyectos de rehabilitación o regeneración: en la BI-633, en Mallabia; en el paso superior sobre la BI-637, en Leioa; en el viaducto de Atxazpi, en la BI-3438; en la estructura Ugaldebieta-4; y en los viaductos de Rekalde y del río Kadagua (Zorrotza) de la A-8.